

Seguros Bilbao-n profesional bat izango duzu ondoan zuri entzuteko prest, zure arazoetan inplikatuko dena eta konponbide indibidualizatuak eskainiko dizkizuna.

Konfiantzazkoa eta konprometitua, zure aholkulari pertsonala.



*Foileto hau informatzailea da. Beraz, bakarrik izango dira baliozkoak polizan espresuki agertzen diren berme eta zerbitzuak.

Eredua: 20412

itsasontziak

“Bere aisialdian, Andresek ez du ezer uzten lotu gabe. Horregatik, berme guztiak eskaintzen dituen aseguru bat du bere itsasontziarentzat”.





Haizea alde, zure lasaitasunerantz

Aseguru hau bereziki sortu da nabigatzaileak segurtasunez goza dezan berea aisialdiaz itsasora doanean bere ontzian.

Nabigazioak berekin dakartzan ezusteko arriskuez gain, poliza honek bere baitan hartzen ditu itsasontziak portuan amarratuta dagoenean, baratokian konponketak egitean, hibernatze-denboran edo errepidez garraiatzean jasan ditzakeen kalteen konponketak.

Era berean, aukera ematen du itsasontzian dauden pertsonen jasandako istripuen ondorioak aseguratzeko.

Itsasontzi guztientzat beharrezkoa den erantzukizun zibileko asegurutik abiatuta, poliza honek berme eta estaldura ekonomiko malguak ditu, eta bezeroak berak erabakitzen du noraino iritsi nahi duen, bere babes premiak kontuan hartuta.

Bermezko itsaso bat

Oinarrizko estaldura

- Erantzukizun zibila.
- Erantzukizun zibila Espainiaren jurisdikziopeko uretatik kanpo.

Eta makina bat estaldura gehigarri

- Naufragioek, talkek, itsas kolpeek, ekintza bandalikoek, suteek edo leherketek, lapurretek eta abarrek itsasontzian eragindako kalteak.
- Itsasontzian dauden pertsonen jasandako istripuak: osasun-laguntza, ezintasuna eta heriotza.
- Defentsa eta kalteak erreklamatzeko.
- Bidaietarako laguntza.
- Itsasoan atotian eramateko gastuak.
- Ekipoak eta ondasun pertsonalak.
- Salbamendu gastuak eta hondakinak erretiratzeagatikoko gastuak.

Gure arreta osoa daukazu

Seguros Bilbao-n zure zerbitzura gaude eguneko 24 orduz.

- Lehorreko garraioa edo lehorreko laguntza tekniko-mekanikoa.
- Ordezko piezak bilatzea eta bidaltzea.
- Itsasontziak matxura edo istripuren bat izanez gero, itsasontziko bidaiariei ostatu emango zaie arazoa konpondu bitartean eta etxerako itzulera bermatuko zaie.
- Zauritu eta gaixoen herriratze sanitarioa.

